




Esportazioak %27,1 hazi ziren otsailean

EAEko ekonomiaren esportazioak
Urte bakoitzeko otsaila. Milioi




Iturria: Datacomex.

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak % 27,1 hazi ziren otsailean, iazko hil beraren aldean. Zifra absolutuetan, kopurua 2.531 milioi eurokoa izan zen, eta aurreko hila-beteetako joerari jarraituz, otsaileko kopururik handiena izan zen berriz ere.

Ibilgailuen matrikulazioak behera egin zuen martxoan

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko martxoa




Iturria: DGT.

Martxoan matrikulazioak % 27,2ra jaitsi ziren. 2020ko erregistroa alde batera utziz gero, martxoa da saldatuko unitate gutxien dituen (1.933), Ukrainako gerrak eta errepideko garraioaren langabeziak eragin oso negatiboa izan baitu automobilen merkatu horretan.



Gaualdiak nabarmen igo ziren martxoan

Gaualdiak hoteletan
Urte bakoitzeko martxoa. Mila




Iturria: Eustat.

Hotel establezimenduetako gaualdiek balio altuak izan dituzte martxoan ere. Zehazki, ia 392.000 gaualdi erregistratu ziren, hau da, 2021eko hil berean baino % 146,5 gehiago, nahiz eta ez den 2019ko martxoko erregistrora iristen, pandemia oraindik hasi gabe zegoela.

Industriako prezioek %22,6 egin zuten gora Euskadin

Industriako prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, 2022ko martxoan industriako prezioek gora egin zuten 2021eko martxoaren aldean (% 22,6). Prezioen hazkunderik handienak energiaren adarretan izan ziren, bai-na helburu ekonomikoaren arabera gainerako ondasun-taldeek igoerak izan zituzten.